

ANTZERKIGINTZA BERRIAK HAUTATZEKO DEIALDIA

1. AURKEZPENA

Gasteizko Principal Antzokiak, Bilboko Arriaga Antzokiak eta Donostiako Victoria Eugenia Antzokiak martxan jartzen dute Antzerkigintza Berriak programa, bederatzigarren urtez, zertarako eta dramaturgo berriei eta beste arte-arlo batzuetatik etorrita (literatura, zinema...) sorkuntza eszenikoan barrendu nahi dutenei antzerki-mundurako sarbidea errazteko.

Programa DSS2016k bultzatu zuen, haren ondarearen zati bat da, eta sortzaileen eta dramaturgoen sare bat sortzea du helburutzat, zertarako eta, ohiko bakar-lana eta hain ohiko ez den talde-lana konbinatuta, material dramatikoaren harrobia osa dezan, antzerki-konpainientzat eta sorkuntza eszenikoarentzat erreferente izango dena. Halaber, ekinbide honen helburua antzerki-testu berriak sortzea da; testua, partitura gisa ulerturik, zeina zuzendari bati ematen baitzaio eszenaratu dezan. Argi gera bedi berri hitzak ez duela zertan esan nahi berritzailea edo abangoardiakoa.

2. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea gehienez ere zortzi sortzaile hautatzea da, antzezlan bat gara dezaten arte eszenikoen profesionalen gidaritzapeko prozesu batean, zeina parte hartzen duten hiru antzokietan –Principal Antzokian, Victoria Eugenia Antzokian eta Arriaga Antzokian– egindako laborategien bidez gauzatuko baita.

3. LABORATEGIEN DESKRIBAPENA

Hautaturiko pertsonak, gehienez ere zortzi, obra dramatiko bat garatu beharko dute bost hilabeteen, arte eszenikoetako profesionalen gidaritzapean. Laborategi horiek 2026ko otsaila eta apirila bitartean egingo dira. Datak eta lekuak behar adinako aurrerapenez jakinaraziko dira. Atal honen azken paragrafoan adierazten dena eragotzi gabe, laborategiak egin eta gero, sortutako obra dramatikoaren artetik bat, bi edo hiru hautatuko dira eszenaratzeko, parte hartzen duten hiru antzokiek ekoiztita.

Horretarako, antzokiak beren aretoak, azpiegitura, langileak eta material teknikoa lagako dituzte ekoizpen horietarako. Halaber, antzoki bakoitzak bere gain hartzen du hautaturiko piezen emanaldia egitea.

Edozein kasutan, obra dramatiko bat hautatzeak eta ekoizteak ez dakar nahitaez berekin eszenaratzea egileak berak zuzentzea. Erabaki hori hiru antzoki parte-hartzaileen esku dago.

Hala ere, Balioespen Batzordeak erabakitzen badu ezein proiektuk ez duela aski interes edota ezinezkoa dela haiek behar bezala eszenaratzea, ez da ezein hautatuko ekoiztia izateko eta hutsik geratuko litzateke.

4. HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK

Europar Batasuneko herrialdeetan bizi den edonork parte hartu ahal izango du deialdian, sorkuntza dramaturgikoarekin lotuta ibilbide bat hasten ari bada edota, beste arte-arloren batetik (literatura, zinema...) etorririk, sorkuntza eszenikoan barrendu nahi badu. Arte-ibilbide guztiak hartuko dira aintzat, ez bakarrik literatur ibilbideak.

Aurreko deialdietan aurkeztu eta hautatuak izan ez direnak ere aurkeztu ahal izango dira.

5. DOTAZIOA ETA BALIABIDEAK

Hautaturiko pertsonak 3.300 €-ko dotazio ekonomiko bat izango dute, proiektuan jardutearen eta laborategietako dieten truke.

6. BALIOESPEN BATZORDEA

Balioespen Batzordea parte hartzen duten hiru antzokien ordezkariak osatuko dute. Batzordearen erabakia 2026ko urtarrilaren erdi-aldera jakinaraziko da; lehenik onuradunei, eta ondoren www.donostiakultura.eus webgunearen bidez. Batzordeak eskubidea du betiere deialdia osorik edo partez esleitu gabe uzteko, bai jasotako proposamenek ez dituztelako gutxieneko betekizunak betetzen, bai geroago, laborategia amaitu ondoren, Batzordeak proiektuen koprodukzioa eta ezenaratzea ezegokitzen jotzen badu.

7. ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA ETA ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA

Dokumentazioa EAEko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da. Dokumentazio guztia, idatzizkoa zein grafikoa, posta elektronikoz bidali beharko da arteeszenikoak@donostia.eus helbidera, gaitzat hau jarrita: "Antzerkigintza Berrien Deialdia".

Kasu guztietan, eskaria bideratzeko, beharrezkoa izango da honako dokumentazio hau bidaltzea atxikita:

- Nortasun Agiriaren fotokopia edota bizilekua EBan duela egiaztatzen duen agiria.
- Curriculum vitae
- Aurkezpen-bideoa (3 minutu): gehienez ere hiru minutuan (luzapen handiagoko bideoak ez dira onartuko) erantzun behar da HONAKO GALDERA SORTA HAU:
 - 1-SINOPSIA (paragrafo bat) eta GARAPENA, argumentu-eran.
 - Baldin eta proiektua ez bada ohiko eredu narratiboetan sartzen, mintzagaia zein den (GAIA) eta nola kontatu nahi den (TRAMA) azalduko da.
 - 2-FORMATUA, HIZKUNTZA NARRATIBOA, PERTSONAIK... Proiektu bakoitzaren berezitasunaren arabera, eta kontuan izanik prozesuan zehar aldatu egin daitekeela, honako honetaz jarduteko eskatzen da:
 - Formatua: proiektuaren tamaina, formatu handia ala txikia; ohiko aretoetarako (italiar erara) ala bestelakoetarako; laugarren horma hausten den ala ez; egitura (edo desegitura) narratiboa...
 - Hizkuntza narratiboa, zeina denik eta poetikoena eta estilizatuena nahiz naturalistena eta prosaikoena izan baitaiteke.
 - Pertsonaiak.
 - Hautagaiak interesgarritzat jotzen dituen beste xehetasun batzuk, obrarekin zerikusia badute.
 - 3-GENEROA, TONUA. Honen xedea hautagaiaren asmoari buruz argibideak ematea da, non koka daitekeen proiektua genero- eta tonu- aukeren artean (drama zirraragarrietik komedia arinera). Baldin eta proiektua ez badator bat ezein etiketa formalekin, saiatu kontatzen zergatik.

Bideoak honako formatu hauetan grabatuta egon beharko du: MP4, AVI, MKV, MOV, DIVX; eta honako aplikazio hauetako batean partekatu beharko da deskarga-estekaren bidez: Google Drive, OneDrive, Wetransfer edo Dropbox. Ez bidali artxiboa emailaz zuzenean

- Idatziz erantzun beharreko GALDERA SORTAren laburpena (folio bat gehienez)

Hautagaitza aurkezteko epea 2025ko urriaren 31ko 14:00etan amaituko da. Hautaketa-epaimahaiak eskubidea du betiere puntu honetan ezarritako denbora- eta forma-baldintzak betetzen ez dituzten hautagaitzak aintzat ez hartzeko.

Deialdiari buruz informazio gehiago nahi izanez gero, jo bedi honako helbide honetara: arteeszenikoak@donostia.eus

8. HAUTAKETA PROZESUA. BALIOESPEN IRIZPIDEAK

Balioespen Batzordeak hautagaitzak aztertuko ditu, deialdiaren irizpideen arabera kalitate eta egokitasun artistikoa balioesteko. Bereziki, honako alderdi hauek balioetsiko dira:

- Eskatzailearen ibilbide orokorra
- Aurkezpen-bideoaren interesa bai bideo zein idatzizko bertsioetan.
- Proposamen eszenikoaren abiapuntuaren originaltasuna eta interesa

Orobat, hautaketa-prozesuan sartu ahal izango da bideo-elkarrizketa pertsonal telematikoko bat ere, Balioespen Batzordearen –zeinak tutoreen laguntza izan baitezake– eta hautagaiaren artean, aurkeztutako proiektua sakonago ezagutzeko.

9. PERTSONA ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Hautaturiko pertsonen betebeharrak hauek dituzte:

- Laguntza onartzen dutelako agiria sinatzea, non laguntzaren baldintzak zehaztuko baitira. Aktiboki parte hartzea adieraziko zaizkien leku eta datetan egingo diren laborategietan, eta, tutoretzapeko prozesu horren ondorio gisa, obra dramatiko bat garatzea eta sortzea.
- Lagako zaien espazioa erabiltzeko barne-arauak betetzea laborategietan (ordutegiak, segurtasun-protokoloak, materialaren erabilera, instalazio erabilgarriak, eta abar).
- Programaren barruan antola litezkeen komunikazio- eta bitartekaritza-ekintzetan parte hartzea (jardunaldi irekiak, prentsurrekoak, solasaldiak, topaketak...).
- Ezar litezkeen lan-epe partzialak betetzea, bai eta programa daitezen lan-bileretan izatea ere, aurrez aurrekoetan zein birtualetan.
- Norbaitek betebeharrak horietako edozein behin eta berriz beteko ez balu, harentzat programa amaitutzat jo ahal izango litzateke.

10. ORDAINTZEKO ERA

Dotazio ekonomikoa honako planteamendu honen arabera ordainduko da:

- Zenbatekoaren % 75, deialdiaren ebazpenarekin batera, dotazioa onartzen delako agiria entregatu eta gero;
- zenbatekoaren % 25, obra dramatikoaren testua entregatu eta gero.

Zuzkidura onartzeak laborategietan aktiboki parte hartzeko eta testua aurreikusitako epean entregatzeko betebeharra dakar.

Betebehar horiek, osorik edo zati batean, betetzen ez badira, erakunde antolatzaileak zuzkidurarako eskubidea galdu dela deklaratu ahal izango du, eta jada jasotako zenbatekoak itzultzeko eskatu ahal izango du, aplikatzekoak diren administrazio- eta lege-prozeduren arabera.

11. DEIALDIAREN BALDINTZAK

11.1. Jabetza intelektual

Parte-hartzaile guztiek bermatuko dute (i) aurkeztutako proposamen eszenikoen eta deialdi honen barruan garatuko diren obra dramatikoaren jatorrizkotasuna eta egiletza; (ii) lanok ez direla inoiz argitaratu, estreinatu edo beste deialdi batzuetara aurkeztu; (iii) lanon jabetza intelektualaren eskubideak dituztela; eta (iv) lanok ez dituztela inoren eskubideak urratzen, eta beren gain hartzen dutela kontzeptu horietatik erator litezkeen erreklamazioen ondoriozko erantzukizun guztiak.

Obra dramatikoak deialdi honen baitan ekoizteko hautatu zaizkion parte-hartzaile bakoitzak erakunde antolatzaileei lagako dizkie lanoi dagozkien Jabetza Intelektualaren ondare-edukiaren honako eskubide hauek:

Ustiapen-eskubideak, eskusiboki, mundu osorako, halako moldez non erakunde antolatzaileek, bakarka zein elkarrekin edota beste batzuekiko lankidetzan, obra dramatikoa ekoitzi ahal izango baitute, komeni litekeen eran egokitu eta eraldatu, eta errezitatu eta antzeztu areto edo barrutietan, espazio publikoetan eta beste edozein lekutan, doan zein diru-kopuru bat ordaindu ondoren, eta hori guztia honela:

Lagapen hori bi urterako izango da hasiera batean, egileari bere obra dramatikoa antzeztua izateko hautatu dela jakinarazten zaion unetik kontatzen hasita, eta erakunde antolatzaileek obraren nahi adina emanaldi egin ahal izango dituzte denboraldi horretan.

Epe hori luzatu egin ahal izango da, 5 urteraino gehienez ere, egileari bere obra dramatikoa hautatua izan dela jakinarazten zaion unetik kontatzen hasita, aurrez erakunde antolatzaileek eta egileak hitzarmena eginik.

Kasu guztietan, obraren lehen jakinarazpena hasierako bi urteko epea iragan baino lehen egin beharko da, egileari bere obra dramatikoa hautatua izan dela jakinarazten zaion unetik kontatzen hasita.

Erakunde antolatzaileak arduratuko dira obraren komunikazio publikorako behar diren kopiak lortzeaz, libreki aukeratuko dituzte produkzioan parte hartuko duten langile artistikoak, eta berek bakarrik finkatuko dute obraren komunikazio-ekintzen publizitatearen idazketa, hori guztia egilearen ikuskapena edo baimena behar izan gabe.

Eskubidea bakarka, elkarrekin edota beste batzuekin lankidetzan, erakunde antolatzaileek osagai guztiekin ekoizten edo koproduzitzen dituzten obra dramatikoaren emanaldiak erreproduzitzeko, hedatzeko, banatzeko, gaur egun den edozein euskarri ukigarri nahiz ukiezinetan, bai eta euskarriotan erantsita leudekeen obra eratorri edota konposatuak ere, edozein hedabidez edota edozein ustiapen-moduz. Ahalmen horiek eskusiboki eman direla joko da, mundu osorako eta legez ezarritako gehienezko eperako.

Eskubidea publikoki komunikatzeko edo ikus-entzuleen eskumenean jartzeko, erakunde antolatzaileek bakarka, elkarrekin edo beste batzuekin lankidetzan, edozein hedabidez edota edozein ustiapen-moduz, osagai guztiekin ekoizten edo koproduzitzen dituzten obra dramatikoaren emanaldiak, edozein eratako erakusketa publiko, proiektzio, eskuratze, emisio, irrati-hedapen, transmisio eta birtransmisio bidez, dela uhin hertziarrez, kablez edo satelite bidez, eta hori guztia modu irekian eta kodifikatuan, sistema analogikoz zein digitalez, ordainpeko nahiz ez, barne direlarik ikusteagatiko ordainketa-sistemak, eskari bidezko bideo-sistemak, baldintzapeko irispideko, irispide libreko zein gisa horretako beste edozein sistema, bai eta beste edozein ustiapen-sistema gidatu, emititu, transmititu edo birtransmititu ere, kablezko, harizko edo zuntz optikozko datu-baseetarako irispide publikoa barne, edo edozein komunikazio-sare digital edota analogikoren bidezkoa, Internet barne.

Eskubidea erakunde antolatzaileek bere osagai guztiekin ekoizten edo koproduzitzen dituzten obra dramatikoaren emanaldiak eraldatzeko, hortik obra berri bat edo gehiago erator litezkeelarik, izan literarioak, artistikoak edo zientifikoak, multimedia obrak barne.

Creative Commons lizentzia bat, Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe (CC BY-NC-ND) 4.0 Nazioartekoa, obra dramatikoaren gainean. Lizentzia horrek bide emango dio DONOSTIA KULTURARI obra hedatzeko, euskarri elektronikoan, bera bakarrik edo "Antzerkigintza Berriak" programak ematen dituen beste obra batzuekin batera.

Esandako guztia egilearen eskubide moralak eragotzi gabe ulertuko da betiere, erakunde antolatzaileek oso-osorik errespetatu beharko baitituzte baldin eta, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, zeinaren bidez onesten baita Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bategina, eskubideok balegozkie deialdi honen barruan ekoitziak izateko hautatuko diren obra dramatikoaren egile diren parte-hartzaileei.

Esandako eskubideen lagapenaren ordainetan, eta bertan sartzen diren kontzeptu guztiengatik, deialdi honen barruan ekoitziak izateko hautatutako obra dramatikoaren egileek beren obren emanaldiek leihatilan sortutako diru-sarreraren ehuneko 10 (% 10) jasoko dute.

Esandakoaren arabera diru-kopuruak, unean uneko zergak eta atxikipen fiskalak kendu eta gero, zuzenean ordainduko zaizkio eskubideak laga dituen egileari edo egileak bere eskubideak kudeatzeko ahala eman dion kudeaketa kolektiborako erakundeari.

11.2. Onuradunen irudi-eskubideak

Parte-hartzaile guztiek espresuki onartzen eta baimentzen dute erakunde antolatzaileek haien irudia eta ahotsa erregistratzea deialdi honen xede den programan parte hartzen duten bitartean, argazkia edota bideoa dela bide, bai eta irudi horiek, ahotsa eta izenak erabiltzea eta erreproduzitzea ere gaur egun diren bitarteko tekniko guztien bidez, edozein euskarritan, ukigarria zein ukiezina izan, eta bereziki erakunde horien websitean eta erakundeok erabilitako beste komunikazio-kanal batzuetan erreproduzitzearen bidez, hori guztia parte-hartzea eta programaren garapena sustatzeko eta hedatzeko xedez. Baimen hori doan ematen da.

11.3. Datuak babesteko legea

Datuak babesteko indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, jakinarazten da eman dituzten datu pertsonalak Donostiako Udalak tratatuko dituela –bera izango dela

Tratamenduaren Arduraduna–, eta Donostia Kulturak kudeatuko dituela –berak jardungo duela tratamenduaren egile gisa–.

Tratamenduaren xedea Antzerkigintza Berriak – Nuevas Dramaturgias programan parte hartzearen tramitazioa eta kudeaketa izango da, baldin eta zuk horretarako baimena adierazten baduzu.

Datuak zer xedez bildu diren, xede hori betetzeko eta xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

Aurreikusita dago harremanetarako datuak jakinaraztea izena emandako profesionali, beren baimenarekin.

Eragindako pertsonen informaziorako, sarbiderako, zuzenketarako edo ezabatzeko eskubideak egikaritu ahal izango dituzte, bai eta indarrean dagoen datuak babesteko araudian jasotzen diren beste batzuk ere, hala badagokio, Donostia Kultura E.E.P.aren aurrean, Erregina Erregeordea 8, 20003 Donostia helbidean.

Beren eskubideak egikaritzean behar bezala erantzuten ez bazaie, erreklamazioa jarri ahal izango dute Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga dohatsuaren kalea, 71 – 3. Solairua – 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, lehen auzialdian, erreklamazioa Datuak Babesteko Donostiako Ordezkararen aurrean egin ahalko dute: dbo@donostia.eus.

11.4. Konfidentzialtasuna

Hautaturiko pertsonen errespetatu egin beharko dute kontratua exekutatzean irispidean duten informazioaren konfidentzialtasuna, izaera hori ematen bazaio edo berez hala tratatua izatea badagokio.

11.5. Oinarriak onartzea

Deialdi honetan parte hartzeak berekin dakar oinarriak eta balorazio batzordearen epaia osorik onartzea. Oinarrietan jasota ez dagoen salbuespen oro Balioespen Batzordeak aztertu eta, hala badagokio, onartu beharko du.

AURREKO EDIZIOETAN HAUTATURIKO PROIEKTUAK

2015

Coordenadas

Egilea: Olatz Gorrotxategi.

Zuzendaria: Lander Iglesias.

Estreinaldia: 2016ko azaroaren 23 eta 24an, Bilboko Arriaga Antzokian.

Soka

Egilea: Mikel Gurrea.

Zuzendaria: Fernando Bernués.

Estreinaldia: 2017ko otsailaren 1ean (euskaraz) eta martxoaren 9an (gaztelaniaz, dFERIA), Donostiako Victoria Eugenia Antzokian.

Miss Karaoke

Egile eta zuzendaria: Oier Gillan.

Estreinaldia: 2017ko apirilaren 5ean, Gasteizko Principal Antzokian.

2016

Erlauntza

Egilea: Kepa Errasti.

Estreinaldia: 2019ko uztailaren 18an, Donostiako Victoria Eugenia Antzokiko Klub Aretoan.

Galerna

Egilea: Tamara Gutiérrez.

Estreinaldia: 2019ko urtarrilaren 22an, Bilboko Arriaga Antzokian.

2017

El patio de mi casa

Egilea: María Goiricelaya

Estreinaldia: 2020ko otsailaren 19an, Gasteizko Principal Antzokian.

2019

La celda sin noche

Egilea: Galder Sacanell

Estreinaldia: 2022ko uztailaren 28an, Antigua Aduana espazioan, Costa Rica-ko San Josen.

2020

Solo Críos, Críos solos

Egilea: Paco Gámez

Estreinaldia: 2022ko otsailaren 24an, Gasteizko Hegoalde Gizarte Etxean

2021

¿Quién nos disparó después del 22? ¿Y ahora?

Egilea: Alexandru Stanciu

2022

Rigor Mortis

Egilea: Dorleta Urretabizkaia

2023

Los días infinitos

Egilea: Sergio Serrano